

...eta

# kitto!

874 zkio.  
2014-1-17



## EZ DOK zuzeneko musikaren parekorik

Isladek ez  
dezatela  
ezkutatu  
nolakoa zaren.

mō betaurreko  
graduatuak  
islaren aurkako  
beslayt kristalekin

67€



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan

# + OSASUN GUDA

## Dentistak

**ARAT Hertz Klinika**  
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

**UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tfn: 943 20 18 51

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfn. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfn. 943 20 34 46 Tfn. 943 74 33 74

RPS: 53/13

**bista eder**  
clínica dental - hertz klinika

**Asko dira**  
gure hertz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

**hertz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. esk. Tfn. 943 20 72 17

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**  
RPS 195/11

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkiu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Tfn.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tfn.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

**GASTESI**  
Hertz-Klinika  
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**

**FISIOTERAPIA**

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

## ASTEAN ESANAK

“Gipuzkoan, lehen ez bezala, gaur egun inor gutxik defenditzen du publikoki kutsatzeko eskubidea, alegia, hondakinekin sudur puntan jartzen zaiguna egiteko eskubidea daukagula”  
(MIKEL IKATZATEGI, GIPUZKOA ZERO ZABOR)

“Ez dugu erremediorik. Antibiotikoen erabilpen traketsaren erruz, hilgarri izateari utzi zioten gaitz askorentzako sendabiderik gabe gelditzen ari da gizakia. Ez dago, oraingoz, haiek ordezkatzeko antibiotiko berririk”  
(IRUNE LASA, KAZETARIA)

“Familiatako soldatak kontuan hartuta, etxeen prezioak %10 gainbaloratuta daude Espainian; iaz, baina, %20koa zen gehiegizko balio hori. Europako beste hainbat herrialdetan are handiagoa da aldea: Belgika (%49), Erresuma Batua (%26) eta Herbehereak (%19)”  
(THE ECONOMIST-LONDRES)

“Jendea kezatan da ingelesa ez zaielako eskatzen Espainiako estatuko presidenteei, gainerako herritarrei bezala. Non dira, baina, estatuko gainerako hizkuntza ofizialak exijentzia horretan? Anasagasti abertzale erdaldunak bai ez daukala erremediorik, Felipe Borboikoari euskara ez ikastea leporatu baitio-eta hamaikagarren aldiz”  
(XABIER LASA, KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KAIKU.-** Tentel, tonto. “Kaiku galanta zara zu behintzat!”.

**KAIKU MOZOLO.-** Oso tontoa, majaderoa (mozolo berbak jeneroa hartzen du). “Kaiku mozola galanta zuen alabia”.

**KAIKUKERIXA.-** Astakeria. “Ez jakiñian zer pentsau, bildurra ala kaikukerixia ete zan Zaldunan jaramonik eza”.

## eskutitzak

### - OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

**ERREDAKZIOA**



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astakeriaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Karmelo Urdangarin

## Galdutako lanbideak

**Eibar eta haren eragin-eremuko armen fabrikazio tradizionalak lanbide berri ugari sortu zituen, teknologia berrietara egokitzen joan zirenak.**

Dibertsifikazio industrialaren hasiera eta garapenarekin, XX. mendeko lehen hogeitau urteetan, gauza bera gertatu zen bizikleta, josteko makina eta beste hainbat produktoren fabrikazioarekin.

Urteak joan ahala, lanbide ugari galdu dira edo galtzeko zorian daude, eboluzio teknologiko geldiezinaren ondorioz. Lerro hauetan, baina, urketariak eta bizikleta-hariztatzailak aipatu nahi ditut. Urketariek beharginei ura eramaten zieten. Urkizu inguruan bizikleta-lantegi ugari zeuden (Orbea, S.A.) eta oso gertu, Txontan, G.A.C, eta beraz, urak, Urkusuakoa behar zuen izan; egokia izan da, beraz, bertan urketarien omenez jarritako eskultura. Gogoan izatekoa da, haren nortasunarengatik, "Azula" Orbeako urketaria. Hariztatzailak, lumak erabiliz, bizikleten tutuak apaintzen zituzten espezialistak ziren. Bizikletak egiten zituzten lantegi guztietan haien funtzioa oso garrantzitsua zen.

## Udal aurrekontuari zuzenketak aurkezteko batzarra

Martitzenian batzar irekixa egin eban EH Bilduk, Bolo Bolo aldizkarixaren azken zenbakixarekin batera zabaldu eban inkestaren emaitzak aztertu eta 2014ko udal aurrekontuari proposatzeko zuzenketak lantzeko. Batzarrak jarraipena izango dau datorren asteko martitzenian, hillaren 21ian, 19.00etan Portalean (ikastaro gelan).

Eibarko EH Bilduko ordezkariaren berbetan, "aurreko urte bixetan egindakua bide-tik, 2014ko aurrekontuaren inguruan be partehartze prozesua abiarazi dogu. Aurten urrats berri bat emon eta Eibarko etxe guztietara inkesta bat bialdu genduan Bolo Boloren azken zenbakixarekin batera eta erantzun ona jaso dogu. Guztira 100 bat lagunek



Igor Aldalur, Leire Abanzabalegi eta Josu Cristobal Gabon aurretik egindako aurkezpen batean. Datorren asteko martitzenian azken inkestaren datuak aztertuko ditue.

erantzun detsa inkestari. Erantzunak ikusitta, ziurtatu gein-ke gure proposamenekin guztiz bat egitten dabenak zein guztiz kontra daguezenak

erantzun dabela, hau da, eibartar multzo zabal baten erantzunak jaso dittugu eta horrek emaitzeri balixo haundixa emoten detse".

## Eneko Astigarraga, ESLE-ko presidente berrira



Eneko Astigarraga (eskuman) David Olmosekin batera.

CodeSyntax-eko Eneko Astigarraga ESLE Euskadiko Software Libreko Enpresen elkarteko presidente izendatu berri dabe. Azken lau urtiotan karguan egon dan eta aurrerantzian alkarteko presidenteordia izango dan David Olmos ordezkatu dau Astigarragak. ESLE-ko zuzendaritza barrixaren helburu nagusixenen artian ezagutza librian oiñarritutako euskal enpreseri bultzada emotia eta alkartea software libre arluan estatu maillako erreferente bilakatzia dagoz.

## Bikote bakuendako afarixa Belaustegin

Elgoibarko Belaustegi jatetxiak urtarrillaren 25erako (zapatua) eskualdeko bikotekidegabiendako antolatu dau afarixa. Bikote barik dagan edozeiñendako zabalik dagan afarira jua nahi dabenak 45 euro sartu biharko dittu Laboral Kutxako 3035 0007 27 0070064931 kontu korrontian hillaren 22rako. Preziuan afarira juateko autobusa sartuta dago (urteeria Eibarko Ego-Gaiñeko geltokittik izango da, 20.00etan).



Afarixa hillaren 25ian egingo da, urtarrilleko azken zapatuan.

## Txontako inguruko ikerketia

Udalak ikerketa urbanistikua egittia agindu detsa MaaB arkitektura eta hirigintza enpresari, auzuak gaur egunian dakan egoeria zein dan ikusi eta, etorkizunera begira, auzuaren akzesibildadia eta energixaren erabilleria zelan hobetu leikiazen aztertzeko asmuarekin.



Ikerketia egitteko bertako pegora guztiak hartuko dittue kontuan, laster moldatuko daben Hirigintza Plan Nagusixak eraustia aurreikusten daben lau pegorak salbu. Asmua,

Juan Antonio Mogelen egindakuaren bidetik, auzua hobetu eta zaharbertzia litzake. Ikerketia egitteko hiru hillebeteko epia eukiko dabe.

## Gureak-ekuak bapo bazkaldu eben

Auzokoak alkartekuak, urtero lez, bazkarixa preparau zetsen Gureak lantegikueri. Aurreko zapatuan ehun lagun baiño gehixago alkartu ziran Erdi Bana eta Urkusu-Gain soziedadietan bapo bazkaldu eta herriko 30 bat alkarte eta taldek emondako oparixak jasotzeko. Urkizu eta inguruko soziedadiak osatzen dabe Auzokoak alkartekuak 1981ian ekin zetsen ekitaldixa antolatziari eta urtero jai egun haundixa izaten da Gureak lantegiko bihargiñendako.



*Erdi Bana eta Urkusu-Gain soziedadietan bazkaldu eta gero, 30 bat elkarte eta taldek emondako oparixak jaso zeben Gureak-ekuak.*

LEIRE ITURBE

## autuan

### MANIFESTAZIÑUA

Beste herri batzutan egindakuaren bidetik, Eibarren be manifestaziñua egingo da gaur 20.00etan, "Denok gara Gamonal" goiburuari jarraituta. Untzagan hasiko da.

### SAN ANTON MEZIA

Gaur goizian San Anton ospatzeko meza berezixa egin dabe Azittaingo Jasokunde elizan. Animalixen babesliaren omenezko mezan basarriko abere eta lanabesak bedeinkatu dittue. Halanda be, gaur juateko aukerarik izan ez dabenendako beste meza bat egingo da domekan, 11.00etan, bedeinkapen eta guzti.

### ARMERIXA ESKOLJA

Mekanizaziñorako kompetentzia-errekonozimendurako izen-emotia hillaren 31n amaittuko da Armerixa Eskolan. Dispositibo horri esker, titulaziño ofizialik ez dakenak aittatutako arluan daken lan esperientzia ebaluatu eta errekonozitzeko aukeria eukiko dabe. Informaziño gehixagorako edo izen-emoteko 943203244 telefono zenbakira deittu leikie.

### KONPOSTADORAK

Debabarreneko Mankomunidiak 200 bat konpostadora banatu dittu eskualdian, lorategixa daken etxietan. Etxian konposta egin nahi dabenak horretarako bihar dittuan tresnak eskuratzeko aukeria daka eta, gaiñera, informaziñorako telefonua be badago (902102885).



**JOSE Mª MURUA ELGUREN**

– 2014-1-3an hil zen –

Zurç amaren, arrebæn eta ilobæn partez  
çskørrik asko gurç bizitzan  
lagun izan zaitugulako



asteko  
46.000  
datua

biaje egin dittue Urkizu eta anbulatorixo parkeko barrakak Gabonetan, iaz baiño %40 gehiago. Astelena haur parkian, barriz, 3.238 ume ibilli dira, 400 bat eguneko eta %85 dendarixen bonua erabillitta sartu dira.



**7. URTEURRENA**  
7º ANIVERSARIO

Urtarrilaren 18an, larunbata, Armagintzaren Museoa 7. urteurrena dela eta **DOAKO SARRERA** izateaz gain, **DOAKO BISITA GIDATUAK** egingo ditugu ERAKUSKETA IRAILKORRA eragutzeko.

El sábado, 18 de enero, celebramos el 7º aniversario del museo con la **ENTRADA LIBRE** y con **VISITAS GUIADAS GRATUITAS** para conocer la **EXPOSICIÓN PERMANENTE**.

- Museoa irekita dagoena da: 16:00etatik 20:00etara bitartean. 8:00 gidatuak 17:00etan eta 18:30 etan egingo ditugu.
- El museo permanecerá abierto de 16:00 a 20:00.
- Las visitas guiadas serán a las 17:00 y a las 18:30.

Tel: 943 708 446  
www.armia-eibar.net



## Museuaren zazpigarren urteurrena

Portaleko bosgarren pisuan dagan Armagintzaren Museoa zazpi urte beteko dattu bixar eta, hori ospatzeko, zapatuan 16.00etatik 20.00etara museora sartzia duan izango da. Gaiñera, nahi dabenak erakusketa iraunkorra ezagutzeko aukera paregabia eukiko dau, 17.00etan eta 18.30xetan egingo diran doako bisita gidatuerei esker. Informaziño gehixagorako 943708446 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, [www.armia-eibar.net](http://www.armia-eibar.net) helbidian begiratu.

...eta kitto! 14/17 • 874 zkia.

## Lan billa dabizenendako taillarrak

Udalak eta Lanbidek, Daiteke gizarte aholkularitzaren bittartez, urtarrilla eta otsailerako formaziño eta enplegu taillarrak antolatu dittu, lan billa dabizenendako erabilgarriaxk diran hainbat gai jorratzeko. Taldeka emongo dittue taillarrak, eguen goizetan, 10.00etatik 12.00etara Portalean (ikas-taro gelan, 3. pisuan) eta izen-emotia duan da (943820180 telefonuan Olaiarengaittik galdetuta edo olaia@daiteke.com helbidera idatzitta). Lehelengo ikastarua atzo emon eben eta datozen astiotan hōnetxek eskinduko dittue: "CV eta joera berriak" (urtarrillak 23), "Elkarrizketarako prestatu zaitez" (urtarrillak 30), "Hautaketa prozesu baten dinamika" (otsaillak 6), "Psikoteknikoetan entrenamendua" (otsaillak 13), "Sare sozialak lan bilaketan" (otsaillak 20) eta "Adimen



Aurreko barixakuan aurkeztu zittuen taillarrak. SILBIA HERNANDEZ

emozionala lan billaketan" (otsailak 27).

Bestalde, Juan San Martin liburutegixak sarreran interresgunia preparau dau, oposiziñoak preparatzen dabizenendako, enpresia sortu nahi dabizenendako eta, orohar, lan billa diharduenendako liburu eta bestelako materixalarekin. Gaiñera, panel batian

dagan lan eskintza guztia eskuragarri ipiñiko dabe eta enplegurako gidaren informaziñoa eguneratu egin dabe. Horrez gaiñ, interneten autoikaskuntzarako zein biharra topatzeko webgune bi dakez: [www.autodidakta.eibarkoliburutegia.net](http://www.autodidakta.eibarkoliburutegia.net) eta [www.enplegua.eibarkoliburutegia.net](http://www.enplegua.eibarkoliburutegia.net).



## Udalaren WiFi saria hedatzen

Iazko urtiaren amaiera, abenduan ekin zetsen udalaren WiFi saria hedatzeko biharri. Danera sei konexiño puntu barri ipiñiko dittue Zuloagatarren kalia, Plaza Barrian eta Errebalen. Hōrretatik lau martxan dagoz eta beste bixak laster erabiltzeko moduan egongo dirala aurreratu dabe. Urtetik urtera WiFi publikua erabiltzen dabenen kopurua gorra doa eta, azken datuaren arabera, gaur egunian 4.300 lagun baiño gehi-

xago dagoz zerbitzua erabiltzeko izena emonda eta herrixan konektatzeko 24 puntu dagoz. Sariari lotzeko, erabiltzaillia wifi puntu batetik gertu jarri (panelek in identifikauta dagoz) eta konektau nahi daben gailuarekin seiñalia topau bihar dau. Segidan, pantailan agertuko dan atarixan erabiltzaillia eta pasahitza sartuta nabigatzeko aukeria eukiko dau (hōrrek eskuratzeko aurretik Wifoc-en erregistrau biharko da).



Jose Antonio Azpilikueta



*Domekero bisitazen gaitu El Diario Vasco-n. SuperMendikutek -eta Evarista emaztiak- 1.200 aste egin dittue gurekin. Azken hamar urtiotakoak bildu dittu Jose Antonio Azpilikueta egilliak eta liburu formatuan aurkeztuko dittu hillaren 23an, Coliseoan egingo dan ekitaldixan. Azala eta maketaziñua Josean Morlesin komikigille gaztiak egin dittu. Testuen orrazketia, bestalde, Badiharduguko Aintzane Agirrebeñak, "oso prestu eta azkar gaiñera".*

## JOSE ANTONIO AZPILIKUETA

# "Dibujantia naiz kontatzaillia baiño gehixago"

### - Aurkeztu bihar dozun errekopilaziñuak zenbat urte hartzen dittu?

Hamarkadia: bilduma 2002ttik 2013ra arte doia. Aurretik beste bi egin dittut: 1994ko Errekopilaziñua, Orraitiokan eta SuperMendikutereren 40 bat jasotzen zittuana, eta SuperMendikutereren X. urteurrenekua, 2002xan.

### - Izango dittuzu laguntzailliak tirak egittek gaixak proposauko deutsuzenak, ezta?

Handik eta hamendik hartzen dittut gaixak. Javi Zabaleta "Katillu", Roberto Bergara... halakuak izan dittut lagun lan horretan. Gero, txistia euskeraz pentsatzen badittut be, askotan amari galdetu izan detsat berak zelan esango leukian gauza bat edo beste, ekibalente egokixena aurkitzeko. Etxekuekin eta ingurukuekin hartzen dittut erreferentzixak.

### - Zenbat denpora kentzen detsu asteroko tirak egittia?

Astero barixakuan egitten dittut, behin baiño gehixagotan gabeko ordu bixak arte egon izan banaiz be. Lehortiak be bisitatzan nau batzuetan eta, halakuetan, buruari buelta asko emon bihar. Ni, gaiñera, gehixago naiz dibujantia kontatzaillia baiño.

### - "Politikamente korrektua" izaten ahalegintzen zara? Bateronbat minduko dozun beldurrik bai?

Ez bereziki, baiña autozentsura moduko bat daukagu beti. Gustora egitten dittut eta, horregaittik, ahalegintzen naiz garratzik ez sartzen; karga intelektualik be hobe ez sar-

tzia halakuetan. Jendiaren iribarria billatzen dot, ez eskandalua sortzia herrixan. Txistia. gaiñera, ez da zure iritzixarekin bat etorri bihar: hau ez da editoriala.

### - Aldaketak aurreikusten dozuz SuperMendikuten? Personaje barririk?

Eroso nago gau egunguekin. Egixa da gure belaunaldixa ez dala agertzen. Sasoi bation komodin moduan nerabillen txakurra be baztertu egin dot azken aldixan. Loibak be urten diranian izenik gabe etara dittut... Aldaketetan sartzeko, oin daukadan baiño denpora gehixago biharko neuke. Eibarko historixako zeozer egittia pentsau dot batzuetan, baiña...

### - Jentia kejavu jatzu noizbaitten? Zoriondu?

Gehixagotan zoriondu kejavu baiño. Izan dira txistia ulertu ez dabenak, umoriak be bere edadia dakalako. Gauzak ahalik eta motzenian egin biharrak, jeroglifikuen tokia be emoten detsa tiriari, zeozer ezkutuarena topatziarena. Chumy Chumezek berak be eskela eta komikixa parekatzen zittuan, balore bera emoteraiño: umore beltzaren maisua izan zan. Blog bat be ipiñi neban mar-txan, baiña bidian geratu da.

### - Pintau egitten dozu, baita unibersidadian klasiak emon. Denbora asko kentzen de-tsu?

Boloniaren asunto horrekin gauzak txarre-ra jua dira guretako eta unibersidadian izandako aldaketiak iñolako bentajarik ez dakar irakasliontzat. Halanda be, neri klasia

emotia beti gustau jata eta pozik nago, askotan ikasliak marzianotzat hartuko nabela jakiñ arren, nik euren moduan! Batxillego Artistikua biharrezkua ez danez, Arte Ede-rretan gero eta jende desbardiñagua dago.

### - Badozu gustoko dibujanterik? Baten bat jarraitzen dozu?

Bat baiño gehixago. Charles Schultz, esaterako. Baita Liniers argentinarra, El Diario de Buenos Airesen "Macanudo" tiriaren egillia. Quino bera. Dibujante gehixenak dittut gustoko, pelotarixak bezala.

### - Tren estaziñoko aurpegixak egittek zelan moldatu ziñan? Pozik egindakuekin?

Bi urtetan egon nintzan pintatzen, Evarista haserretzeraiño (SuperMendikuteko protagonista). Sistema guztiz "organikua" erabili neban biharra egittek eta danetik sartu neban, kerixak engantxau eta hartzen dozuzan moduan. 107 aurpegi dagoz guztira.

### - Oingo liburuaren hitzaurria Bernardo Atxagak egin detsu. Zelan izan da hori?

Kasualidade hutsa! Gernikako bonbardaketaren urteurrena zala-eta kaleratutako liburuan Atxagaren ipoiña zeguan eta, haren amak Eibarren hainbat urte emon zittuala-eta, SuperMendikuteko Evaristak Atxagak gitxienez Nobela merezi ebala esaten eban. Bere eskuetara heldu eta asko gustau jakon. Hitzaurria eskatu netsanian, berihala prestau zan. Hor esaten dau ez darguala Eibarrek bezala herrixari buruzko tiri-dakan hiribururik.

## Printzesa nafar bat Ingalaterrako erregina (LIBE SARASUA GASTESI GOGOAN)

**Berengela edo Berengaria (1165 Tuteran?-1230 Le Mans)** Gaztelako Santxa eta Nafarruako Santxo VI.a Jakitunaren alaba, Santxo VII.a Indartsuaren arreba eta Champagneko Blanka kondesaren ahiztia izan zan. 1191 urtian Rikardo Lehoi-Bihotzekin (Oxford 1157-Châlus 1199) ezkondu zan Txipren, Hirugarren Gurutzada sasoi. Izan be sasoi korapillatsua Berengelak berak ezkondu aurretik ezagutu ebana: Akitanian Leonor eta Siziliako Joana, amagiñarreba eta koiñata izango ziranekin batera zorian, itsasontzia Txipren hondoratu zan eta bertako gobernatzaillik preso hartu zittuazan Rikardok uhartia konkistatu arte.

Berengela, Plantagenet-Akitania senittarte ospetsuekin egittiaz gain, Ingalaterrako erregina bihurtu zan. Berengela, inoiz ez zan egon Ingalaterran baina, ezkontzari esker bere bizibidia esanguratsua izan zan: Alde batetik, goi erdi aroko Europari lotutako bi monarkixaren hartuemonak sendotu ziralako, eta ondorioz Akitanian menpe zeguan Behena-

farrua Nafarroari lotuta geratu zalako. Bestalde, Santxo Indartsua Gaskoinian nagusitu zan Rikardo erregiaren izenian.

Bittartian, Berengela Lur Santuan zeuan, Rikardok hartutako Akreko portuan, gurutzuaren gordelekuan, europar kristauek sarrazenuen aurka antolatutako kanpainaren lekuko. Andra-gizonen arteko hartuemonak hotzak izan ziran, itxurazkuak besterik ez. Rikardo erdi aroko zalduna zan eta, borrokatiaz gafiñera, olerkixak eta musikia be gusatzaten jakozen. 1192 urtian bixak Europara bueltau ziran baina, Austriako dukiak erregia bahitu zeban. Orduan be, Poitiersetik erreskateakin arduratu zan Berengela: Nafarruako neba bat bahitu izan bazetzen moduan prestau zan Rikardo libratzeko. Azkenian, heroiak diru arazoak euki zittuan eta altxor billa, Châlus gaztelua inguratzen hil zan.

Berengelak, 34 urte ekazen alargundu zanian, bere bizitza beste zeregiñekin betetzeko oindiño gazte...

**Rikardo Lehoi-Bihotz seme-alaba barik hil zanian**

(nahiz eta bazeukan bat ezkontzatik kanpo), bere anai Juan "Lurbako" egin zan Ingalaterrako errege. Berengela, alargun-erregiñak Rikardoren azken borondatia eskatu zetsan koinatuari eta honek ezetzta emoterakuan, Aitta Santuarengana juan zan bere alde eñ zeixan. Bestalde, 1204. urtian Frantziako erregiak Le Mansko jauregixa emon zetsan beste eremu batzuen truke. Hainbeste juan-etorri egindako damia, inguruko behartsuei laguntzen bizi izan zan eta azkenak pakian eginda juan zan Le Mansen, 60 edo 65 urte eukiko zittuanian.

Berak sortutako L'Epau abateixian dago lurperatuta; baiña hamen be, ibiltarixa izatez, bere gorpua zortzi aldiz lekutik aldatu dabe. Gaur egun, hillobi-harrixa, kapitulu-gelan dago eta bisitari asko dakaz. Izan be, hillarrixa berezixa da eta artegilliak zentzuna azertzen dihardue: Koroizko dontzeilla gazte bat harlanduta, bere eskuetan "ordu" liburua, limosna poltsia gerrixan eta gehixen harritzen dabena oiñetan: leialtasuna adierazten daberen txakurran gafiñan, lehoi bat



txakur mantsua babesten... Rikardoren irudia akaso? Berengelak berak agindutako sinbolua? Halanda be, Loira ballaran dau Le Mans, eta bertan Berengelari eskeinitako kalia, liburutegixa eta museo etnografikoa. Izan be, 1935.ian Cecil B de Mill zuzendarixak pelikula bat egiñ eban Gurutzaden gafiñan; eta beste gertakizunen artian amodiozko istorio bat kontatzen dau Rikardo Lehoi-Bihotzek eta Berengelak (Loreta Young) bizi izandakua. Zineko gauza honek, sasoi testuinguruan gatxa egixa izatia; gafiñera ez ei dauka balixo asko filmiak, baiña, tira, gure ximontar printzesaren bizi arrastuak ezagutzeko modu bat bada.

**ARANTZA LASA ASTOLA**

# KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

*30 urte Eibarko bizilagun-erkiidegoekin konprometitua*

*Zerbitzua Gestioa Administrazioa*

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**EUKI** zerbitzu inmobiliarioak

**ESPERIENTZIAK EMATEN DUEN KONFIANTZA**

www.euki.com Tel: 943 200 358



Funeraria Ehorztetxe **Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea <b>GRUPO Funeuskadi</b></p>	





Partidu orekatua eta ondo jokatuak ikusi zuten Orbean izan zirenek. LEIRE ITURBE

## Ikuskizun ederra waterpoloko azken jardunaldian

Zapatuan Orbeako kiroldegian jokatuak lehen itzuliko azken partiduan, Urbat Urkotronik-ek 12na berdindu zuen Fortuna Tximistarri talde indartsuarekin. Eibarko taldea mailari eusteko borrokan dabil eta, aldi berean, progresio ikaragarria erakutsi du azken sasoiari. Atsedenera 5-6ko emaitzarekin heldu ziren eta ordutik aurrerako ikuskizun hutsa izan zen, Donostiako taldea gero eta urduriago ikusita eibartarrak, lotsagabetuta, errespetua galdu ziotenean. Hala ere, gertu baina atzetik joan

zen Urbat amaieraraino, azken segunduan Anartz Mitxelenak berdinketa lortu arte, eskuadratik sartu zen golarekin.

Orain geldialdia izango da Ligan eta Kopari ekingo diote Davide Cerchiren mutilek. Zozketak Oiaso Bidasoa jarri du kanporaketako aurkari eta bihar jokatu behar dute eibartarrek Irunen, sailkapeneko hirugarrenaren kontra. Harrobia ere indartsu dator eta infantil mailako taldeak 12-7 irabazi zion Bidasoa XXI-ari: maila eman zuten, gainera, taldeko neskek.

## Katu Kalek Ruibalek baino hobeto hasi du urtea

Denboraldiko partidurik onena jokatuak, Katu Kale Legazpiko Andraitz taldea birrinduta laga zuen, 61-33 irabazita. Zaila zen halakorik aurreratzea, Legazpin jokatuak neurketan eibartarrek 22 puntuko aldearekin galdu baitzuten eta, ordutik, pibote postuetan jokalariek berriekin altuera irabazi dutelako Legazpikoek. Hasieran eutsi ondoren, Sergio Garrido eta Alberto Horcajadaren hirukoekin aurrera jo zuten Katu Kalekoek, azken laurdenean Iñaki Sanchez entrenatzailea jokatzera animatzeraino. Bihar Donibasket liderra bisitatuko dute eibartarrek Pasaian.


Ruibal Alquiler, bestalde, Internacionalekin 40-64 galdu eta gero, azken aurreko postuan jarraitzen du, baina orain salbaziotik bi puntura. Parean ligako defentsarik onena izateak argumentorik gabe laga zituen eibartarrak Ipuruan eta 2-17ko partzialak partidua erabakita laga zuen. Will Polanco izan zen saskiratzaile onena Ruibalen. Bihar Tolosako Usabal kiroldegian jokatuak dute, TAKE taldearen aurka.



Katu Kalekoek neurketa borobila jokatu zuten Ipuruan.

## Durangok lau puntuko aldea foball zaletuan

Azken jardunaldian Koskorrek izandako estropozuak, Iruki-ekin bana berdinduta, bidea eman dio Durango liderrari (7-0 Oishi Tankemans-i, Unairen bost golekin) euren arteko aldea lau punturaino handitzeko. Atzetik doazen Txokok eta EzDok-ek euren partidua irabazi zituzten (6-3 Alkidebari eta 2-1 Esmorgari, hurrenez hurren) eta 3. eta 4. postuetan jarraitzen dute. Durango liderrak Esmorga izango du aurkari bihar 09.00etan eta Koskorrek Areto etzi ordu berean.



Unamunzaga

## Hierros Anetxeko hiru emakume Euskadiko selekzioarekin

Iratxe eta Nahia Fernandez ahizpak eta Ehari Ulazia izan dira Euskadiko selekzioarekin A Coruñan jokaturako selekzio autonomikoen arteko txapelketan. Eurekin batera, Getxoko zazpi ordezkari, Hernaniko seik, La Unicako bostek, Durango-Uribealdeko lauk, Gaztediko bik eta ASBko bakarrak osatu zuten Andoni Samperio hautatzaileak osaturako taldea. Kataluniak irabazitako torneoan, euskaldunak bosgarrenak izan ziren, Valentziarekin 5-10 galdu eta Murtziari (52-3) eta Andaluziari (5-0) irabazi eta gero.

Nesken errugbia goraka doa gure herrian eta horren adibidea da infantil mailako Eibar Rugby Taldean sartu diren beste bi. Talde horrek 70-5 irabazi zion Arrasateri azken jardunaldian, neur-



Valentziarekin galdu ondoren, Euskadik bosgarren postua lortu zuen.

keta serioa eginda, eta Markel Lomanak eta Oier Egurennek Gipuzkoako selekzioaren deia jaso dute.

Lehenengo taldeak, bestalde, bigarren itzuliari ekingo dio domekan Unben Bilbao R.T. sailkapeneko azkenaren aurka. Partidu erraza aurreikusten da eibartarrentzat.



Ibaibarriagak jaurtitako bost penaltiak gauzatu zituen.

## Somos Eibar Eskubaloiak indartsu hartuko du bihar Egia aurkari zuzena

Estatuko Lehen mailako bigarren itzuliari bikain ekin diote Fernandezek mutilek eta Quiron Askartza taldea txiki laga zuten Leioan jokaturako partiduan (16-31). Bizkaitarrek bi denbora eskatu behar izan zuten neurketa hasieran eta, geroago onartu zuten, "eibartarrek umiltasun, intentsitate eta eskubaloi ikasgaia" eman zien. Somos-ekoen gol gehienak eraso estatikoe-tan lortu ziren, Ibaibarriagak jaurtitako penalti guztiak asmatzeaz gain.

Aurretik ere erakutsia zuten eibartarrek sasoi betean zeudela: Miguel Diego II. Torneoan goragoko mailan diharduen Erein-

tza gaintu egin baitzuten. Eta Euskal Kopako finalerdietan Asobalen jokatzeko duen Bidasoa estu hartu zuten, azken bost minutuetan erabaki baitzen partidua (26-28 irundarren alde). Bihar 19.00etan bide beretik jarraitzea komeniko zaie, Egia Ipuruan jasoko duten aurkaria sailkapeneko hirugarrena baita, eibartarrendik bost puntura: Donostian gol batengatik irabazi zuten eibartarrek.

Harrobiko taldeei dagokienez, azken asteburuan bost partidetatik lautan garaile izan ziren Somos Eibarkoak, tartean jubentil mailako nesken bi taldeak.

## Aitor Hernandez ziklo-kros munduko txapelketan izango da

Ermutxo txirindulariari kostatzen ari zaio gripea ahaztu eta bere onera bueltatzea, baina hala ere Pascual Momparler hautatzaileak deitu egin dio, Javier Ruiz de Larrinagari moduan, otsailaren 2an Hoogerheiden (Holanda) jokaturako den Mundialean parte hartzeko. Eurak izango dira Espainiako ordezkari bakarrak txapelketa horretan. Bestalde, asteburuan Larrinaga gehiago izan zen eta Hernandez bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen Segorben jokaturako Espainiako txapelketan. Garaipenez betetako denboraldiaren amaiera honetan, gaixotasunarekin ahultasun puntua igarri zaio Aitorri; dena dela, oraindik hamabost egun ditu Mundialera arte eta, aurretik, Ispasterreko proba indarrak neurtzeko.



## Elurretan jaisteko eski tekniken ikastaroa

Elur mota guztiak jaisteko eski tekniken ikastaroa eskainiko du Gipuzkoako Mendi Federazioak otsailaren 8an eta 9an. Ikastaroa Luz Ardiden - Barèges - La Mongien izango da, honako edukiekin: biratze oinarrikoak, eski konbentzionala, carving erako biratzea eta elur gogorretan eta bigunetan biratzea. ([www.gmf-fgm.org/main.php](http://www.gmf-fgm.org/main.php))

## Garbiñe Muguruza tenislariak lehenengo torneo irabazi du

Munduko WTA ranking-ean 38. postura igo da aita Eibarkoa duen Garbiñe Muguruza tenislaria, Hobarteko torneo irabazi eta gero. Aurretik ere Australiako hiri horretako txapela jantzi zuen Muguruzak, iaz binakakoa irabazi zuenean (orduko hartan Maria Teresa Torrórekin). Banakako garaipen horrekin orain arteko posturik onena lortu du Garbiñek, justu Venus Williams-en (Serena munduko onenaren ahizpa) atzetik.



Muguruza, eskuman, M<sup>a</sup> Teresa Torrórekin, iaz binakakoa irabazi zuenean.

## Garaipena eta porrota xake ligako lehen jardunaldian



Jon Arana garaile izan zen lehen jardunaldian.

Zapatuan hasi zen Gipuzkoako Taldeko xake ligan, Deporrek taldeek emaitza desberdina lortu zuten: maila goreneko taldeak Beasainen Alfil taldeari 1-3 irabazi zion bitartean, bigarren mailakoak 3-1 galdu zuen Anaitasuna-Kakute B taldearekin. Ricardo Bastidak, David Perezek eta Jon Aranak irabazi zituzten jokotutako partidak Beasainen; Azkoitian, bestalde, Mikel Larreategi izan zen garaile bakarra. Bihar, 16.00etan hasita, Eibar A-k Anaitasuna-Kakute A hartuko du Deporren.

## berriak



### AGUR JOSE ENRIQUE

Jose Enrique Gonzalez Klub Deportiboko Mendi batzordean hainbat urtetan jardundakoak laga digu, 75 urterekin. Bere aldeko hiletak atzo egin ziren San Andres parrokian. Argazkian, iazko Eibarko Kirol Sarietako edizioan, mendiko saria jaso zuenean.

### AÑIBARROREN KEMENA

Eskozia La Bravak urtero Jokalari Kementsuenari ematen dion saria Añibarrok jasoko du domekan, Eibar-Jaen partidua hasi aurretik. Hamargarrena da saria sortu zenetik eta, bere aurretik, Xabik, Lombrañak, Altunak, Sutilek, Del Olmok, Codinak, Azkoitiak, Garitanok eta Karmonak jaso dute.

## Eibar-Jaen etzi, 17.00etan

Eibar F.T.-k bigarren itzuliri ekingo dio etzi, bigarren domeka jarraian Ipuruan, Jaen igo berriaren aurkako partiduan. Denboraldia hasteko Jaenen jokotutako partiduan Garitanoren mutilak nagusitu ziren eta mendeku bila etorriko dira andaluziarrak, asko hobetu baita azken aldian, aurreko zapatuan Gasteizen ikusi ahal izan zen moduan.

## Hitzarmena Eskoriatzarekin areto-foballean

Areto-foballean probintziako erreferentia den Debabarrena Elgoibar Eibar taldeak hitzarmena sinatu du Eskoriatza K.D.-rekin. Azken honek Euskal Ligan jokatzeko eta 3. mailara igotzeko borrokan dihardu; horrez gain, ekipoak ditu senior, jubenil, kadete, infantil eta eskola mailatan. Hitzarmenean hainbat lan-kidetza mota zehazten dira, talde bien-tzako abantailak ekarriko dituztenak.



- tartak
- enkarguak
- etxera

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

*Donaziño kontuetan euskaldunok -eta Espaiñiako estatua orokorrian hartuta- munduko eskuzabalenak izaten jarraitzen dogu. Urtebete da odol-emotailiak be lehengo Pageiko lokaletik Anbulatorixora pasatu zirala odola etaratzeko: neurrixa onerako izan da eta ehun bat lagun gehixago dabiz odola emoten. Dana dala, badago donaziño esparruan ardi beltzaren funziñua tokau jakona: medula edo hezur-muiñarena, hor donaziñuak askoz be gitxiago diralako, adittuen esanetan "konzienziaziño eta informaziñuaren faltagaittik". Gabon Zahar egunian Estaziño kalian egin zan Geltoki Marketeko azken ediziñuan eibartar batek horren inguruko informaziñua eskindu zeskun.*

## *Donaziñuak: gero eta premiña haundixagua*

**A**ste honetan kaleratu-tako datuak erakusten dabe, berriro be, organu emotailien artian eskuza-balenetarikuak garela Euskal Herrixan. Horretan, baiña, ez gara bakarrik, eta estatu osuan nahiko zabalduta dago eskuza-baltasun hori, mundu maillan goi-goixan kokatu arte. Rafael Matesanz Transplantien Organizaziño Nazionalako zuzendarixak esandakuaren arabera, Espaiñian azken urtian ixa 4.300 trasplante egin dira, oiñ arteko kopururik haundixena: "Azpimarratzekuak dira birike-na (%20xa igo da) eta pankreasena (%11ko igoeriarekin)". Jai-

tsi dan kopuru bakarra da trafiko-istripuetako emotailiena -gaur egunguen %4,4 besterik ez da-: istripu kopurua jaistiarekin batera, bizirik emoten dabenen kopurua be gehittu bihar jako (guntzurrunaren kasuan, %5 igo da azken urtian).

### **Anbulatorixuan gehixago**

%12'7 igo da urte baten, Pageiko lokalien odola emotetik ambulatoxuan emotera pasatuta, donaziñuen kopurua. 2013an 927 odol-donaziño egin dira, aurreko urtian baiño 105 gehixago. Ez hori bakarrik: odol-emotaille gehixago be pasau da ambulatoxiko-



tik (22 gehixago zehazki esateko, 474tik 496ra jauzixa eginda). Emotaille barrixak lortzia lan gatxenetakua bada be, azken urtian 67 lagun juañ dira lehelengo bidar odola etaratzera.

Hogei urtetik gora dira gure herrixan odol-etaratziañ hasi zirala eta Pageitik ambulatoxora aldatziañ badirudi bentajak besterik ez dittuala ekarri, "edozer gertautu be, segurtasun gehixago eskintzen dabelako zentruak, herri erdixan egotiaz aparte".

Gasze asko dago odol-emotaille barrixen artian: ixa erdixak 25 urtetik behe-rakuak dira. Hori bai, kopuru osuari begiratuta, bakarrik 57 dira 18 urtetik 25eraiñoño tarte horretakuak, "urtiekin jendia fidelagua dalako". Holan, 107 lagun eguazen 26 urtetik 40raiñoño tartian, 129 41etik 50 urtera artekuak eta 202 50 urtetik gorakuak. Dana dala, beti bihar izaten da gehixago, "zer esanik ez uda sasoi-

heltzen darian, halako hilla-betietan asko jaisten dalako emotailien kopuru hori". Gure herrixan ekstrakziñuak hama-bostian behiñ egitten dira, eguenetan, arratsaldeko 18.30-xetatik aurrera.



*Operaziño asko dagoz donaziñuen menpe: bai odolaren zeññ organuen kasuan.*

### **Odol-emotiaren ingurukuak**

Donaziñuaren eta sarbide-zaiñaren arabera denbora gehixago edo gutxiago biharko dau odol-etaratziañ; baiña, gitxi gorabehera 5 eta 10 miñuturen artian egoten da. Plasma donaziñuaren kasuan, 40 eta 60 miñuturen artian eta afere-sis batian ordubetetik gora.



*Azken urtian hainbat gasze animatu dira odola emotera.*

## Medulia emoteko konzienziatzen

“Mailla personalian sartu nintzan proiektu honetan, Guzman Bilboko ume bat ezagutu nebanian. Azken aldixan, trasplanta be egin detse; baiña, badirudi arazo bat edo beste izan dabela, eta bizitzeko borrokan jarraitzen dau”, diosku Arantza Alvarezek. Kasu horren alde egindako biharra esperientzia atseingarixatatzat jotzen dau, “oso emotibua eta baitta, aldi berian, beldur haundikua, denporia gaiñera etorriko ez jakun esperantzaz”.

Estaziño kalian ipiñitako postuan izandako erantzunarekin pozik dago Alvarez: “35 folleto eruan nittuan eta beste hainbeste txapa: danak banatu nittuan. Liburuak be hartu zesten; gitxi batzuk ekarri nittuan etxera”. Konzienziaziñua egitten jakogorrena: “Ezjakintsunarekin batera, askok ez dakixe-eta, odola dala emon bihar dozuna eta ez hezur-muiña, konzienziaziñua bai dala arazo larrixa: asko ez da

konturatzen bera izan leikiala edozein momentutan horren premiña izan leikiana”. Sensibilizatzeko arrazoirik be botatzen desku: “Gaixuen kasu asko eta asko umienak dira, leuzemiarekin eta halakuak”.

Azken uda be aprobetxatu eban Arantzak Guzmanen alde egitteko: “Santoña osua bete neban Guzmanen aldeko kartelekin eta lazada berezi bat be prestau neban, ohiko lazuetatik desbardiña.. Bilbottarraren aldeko taldetik urten badot be, bere aldeko lanarekin jarraitzen dot, iñoren laguntzarik gabe”.

Azken egunotan BOEn kaleratu dan ize- nekin laguntzak pertsonalizatzeko de- bekuaren aurka dago, “persona partikular baten alde egittiak ez dakarrelako ezer txarrik: konzienziaziñua da printzipalena”. Holako ahalegiñari esker duplikatu dirala donaziñuak diño, “ez Matesanzen kanpaiñeri esker”.



Arantza Alvarez Estaziñokalian, azken Geltoki Marketi-ian ipiñi eban postuan.

**“KONPARTITU BIZITZA ZURE BIZITZAREKIN”**

Eman bizia zure bizitzarekin  
Comparte vida con tu vida

**SOS**

Eman Hezur-Muina  
Eman Bizia

REDMO (Registro Donantes Médula Ósea)  
Tfno. 934 145 566 - Fax. 934 140 028  
www.fcarreras.org - info@fcarreras.es

Dona Médula Ósea  
Dona Vida

### Meduleraíño solidarixuak

Hezur-muin emotailia izateko 18-55 urte bittartian egon bihar dozu eta, gertuen dozun hezur-muin zentrora juanda, han analitikia egingo deutsue. Dana bihar dan moduan badago, etxian jasoko dozu REDMOko (Registro Donantes de Medula Osea) partaidia zarala diñuan gutuna; eta, ordutik aurrera, naziñoarte maillako emotailia bihurtuko zara. Behin emotailia zarenian, honako pausuak jarraitu bihar dozuz: 1) Norbaittek zure medulia bihar izan ezker, Registrotik jakiñaraziko deutsue; 2) Mediku-talde batek osasun azterketia egingo deutsue eta bihar besteko informziñua eskinduko deutsu; 3) Medulia edo hezur-muiña bi modutan emon leike: a- anestesia orokorraren bidezko prozedura kirurgikua erabillita, aldakako hezurrian ziztadak emonda, edo b- besuan egitten dan aferesis izeneko odol ekstrakziño baten bittartez.

**Informaziño gehixago: Transfusiño eta Tejiduen Euskal Zentrua (900 303 404) eta Gipuzkuako Transplantien Koordinaziñua (943 007 016). Baitta infodmo@osakidetza.net**

Odol talde guztiak biharrezkuak eta bentajosuak badira be, 0- taldeko odol-emotailia (donante unibersala be deitzen jako) interesantia da guztiz, haren odola egokixa dala- ko edozeiñentzat.

Donaziño baten eta hurrengua- ren artian gitxienez bi hilla- beteko tartia pasatu bihar da. Halanda be, legiak topiak ipin- tzen dittu: gehixen jota urtian lau bidar gizonezkuarentzat eta hiru emakumien kasuan. Ema-

kumiak gitxiago emotiaren arra- zoia hillorokuan dago, horregaittik urte osuan galtzen daben odola donaziño baten parekua dala estimatzen dalako.

Hepatitis pasau dabenak be emon leike odola, 11 urte egiñ aurretik pasau baeban. Kanpora biajian urtendakuen kasuan, badira toki batzuk gai- xotasun infekziosuen arriskua dakenak (paludismua, Chagas gaixotasuna...) eta hobe da esatia. Baitta kuarentenia gor-

detzia be askotan. Tatuajiak egitterakuan, edo depilaziño elektri- kuaren kasuan, erabillittako erremittak esterilak ez baziran, lau hillabetietan ezin da odolik emon.

Jakiña, ez da komeni barau- rik juatia odola emotera. Eta, bero sasoi- etan, hobe da liki- dua edatia, bai odola emon aurretik eta baitta ondoren. Hori bai, ez da komenigarria jan eta berihala odola emotia, digestiñuan odola aparatu di-

gestibora juateko tendentzia dakalako eta zorabiuak izateko arriskua asko haunditzen dala- ko. Odola emon aurretik, dana dala, “kobre sulfatuaren pro- bia” egitten da, anemia izatia edo globulo gorrixen faltia deskartatzeko.

#### Hainbat organu donatzeko

Guntzurrunak, gibela, biho- tza, pankreasak eta biririkak emon leikez. Horrez gaiñ, bai- tta beste tejido batzuk be: esa- terako, korneak, hezurra, azala eta odol-hodixak. Donantia egi- tteko asmo hori gertukuen famelixakueri esanda nahikua izaten da, eurei konsultatuko baidetse kasua heltzerakuan: eurak izango dira, beraz, zure erabagixaren bermia. Espaiña- ko transplantien legiak esaten dabenez, danok gara donan- tiak, kontrakorik ez badogu esan behintzat; dana dala, lege horrek famelixakueri edo gertu- kueneri galdetzia bihartzen dau halakuetan. Praktikan famelixa- ren erabagixa da errespetatzen dana, famelixak onespren hori siñatu biharra daka-eta.

**Ekainaz geroztik Beinat Saban, Mikel Quina eta Jose Angel Gimare dira Ez Dok tabernako arduradunak. Hasieratik zuzeneko musika emanaldien aldeko apustua egin dute hiru gazteek eta, udako etenaldi laburra eta gero, ikasturte berriarekin batera asteburuero kontzertuak eskaintzeari ekin diote. Zapatuan Layo Raser taldeak joko du tabernaren beheko solairuan eta hurrengo asteburuan Madrilgo King Bee-ren txanda izango da.**

**- Nolatan animatu zarete tabernan astero kontzertuak antolatzen?**

Egia esateko, taberna hartzeraz animatzeko orduan musikak zeresan handia izan zuen. Hirurok musika maite dugu eta hasieratik garbi ikusi genuen arlo horretan herrian zegoen nolabaiteko hutsunea bete nahi genuela. Horregatik, gaur egun merkatuan dagoen musikatik piska bat aldentuta, rock zein bestelako erritmoak eskaintzeko kontzertuak antolatzen hasi ginen, musika gustoko duen jende guztiarentzat emanaldiak eskaintzen. Moduren batean azaltzeko, guri aurkitzea gustatuko litzaiguen moduko taberna egin dugu.

**- Eta jendeak ondo erantzun du?**

Bai, oso ondo. Kontzertu egunetan beti etortzen da besteetan baino jende gehiago, batzuk kanpotik ere etortzen dira. Jendeak pozik hartzen du betiko aukeretatik kanpora, bestelako eskaintza aurkitzea. Askok benetan eskerteren dute.

**- Zaila da asteburuero tabernan joko duen taldeekin kon-**

**taktuan ipini eta kontzertuak antolatzea?**

Hemen izan diren taldeetakoek esanda edo internet bidez zein bestela, kontzertuak antolatzen ditugula zabalitzen joan den neurrian, agenda bete egin zaigu, talde mordoak idatzi edo deitu digu kontzertua emateko interesa dutela esateko. Benetan eskaera handia dago. Gainera, jo duten taldeak oso pozik daude.

**- Sarrera doan izanda, zer moduz egiten diezue kontzertuen gastuei?**

Piska bat arriskatu beharra dago, baina orain arte jendeak ondo erantzun du eta, beraz, aurrera egiteko moduan gaude.

**- Honezkeroko egutegi modukoa finkatuta daukazue, ezta?**

Bai, zapatuero talderen baten zuzenean kontzertua ematen du eta, horrez gain, hilero lehen barixakuan Jam Session delakoa antolatzen dugu. Azken honetan, guk jotzeko tokia eta instrumentuak ipintzen ditugu eta jotzera animatzen denak horretarako aukera dauka. Aldez aurretik bakoitzak zer jo nahi duen-eta esateko aukera dago Facebook-en Ez Dok Jam Sessions talde irekian.



Beinat, Mikel & Jose Angel  
(EZ DOK TABERNA)

## "Taldeen kontzertua emateko interes handia daukate"

**Isadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelertatik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com

## Pintxo Developer topaketaren bigarren saioa

Gaur 18.30etatik aurrera Pintxo Developer topaketaren bigarren saioa hartuko du Errebal kaleko Anardi tabernak, Udalak sortutako Gertatu ekintzaileen eztabaida-lekuaren eskutik. Pintxo Developer esperientziak, beste hiri batzuetan egindakoaren bidetik, bideojokoak, marrazkigintza, programazioa eta horrelako gaiak gustoko dituzten profesional zein zaletuak erakarri nahi ditu, Eibarren taldea sortu eta jendeak bere artean ideia, kontaktuak eta bestelakoak elkartrukatzeko tarte izan dezan. Informazio gehiagorako meetup.com/pintxodeveloper webgunera jo daiteke, info@pintxodeveloper.com helbidera idatzi edo Twitterren @pintxodeveloper jarraitu.



Gertatu ekintzaileen eskutik egingo da berriro Pintxo Developer. SILBIA HERNANDEZ



Sukaldaritza tailerra egingo dute gaur arratsaldean.

## Indianokua gaztelekua martxa betean

Muzategi kaleko Indianokua gaztelekuan gogotsu ekin diote urte berriari. Aurreko asteburuan, besteak beste, 2014rako agendak egiten ibili ziren gazteak. Eta asteburu honetan ere ondo baino hobeto pasatzeko egitaraua prestatu dute bertako arduradunek: gaur arratsaldean sukaldaritza tailerra eta "Disparate Eguna" egingo dituzte. Bihar, berriz, ping-pong txapelketa eta "Disparate Eguna" egingo dira. Eta domekan, Play eta Wii bideokontsolekin jarduteko aukera izango dute gazteek. Gaztelekua honako ordutegian zabaltzen dute: barixakuetan 16.30etatik 21.00etara, zapatuetan 17.00etatik 21.00etara eta domeka eta jai egunetan 17.00etatik 20.30etara (astelehenetan itxita). Dena dela, antolatutako ekitaldi eta bestelako guztien berri zehatza izateko eibarko-gaztelekua.wordpress.com bloga kontsultatu daiteke.

## Autoenplegu eta ekintzailetasuna

UrratsBat proiektuen tutoretza duen Integra aholkularitzak aste honetan autoenplegu eta ekintzailetasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzerantz bideratutako ikastaroa eman du Uni Eibar-Ermua ikastetxean eta bertan Gipuzkoako Lanbide Heziketa zentruetako 30 bat ikaslek hartu dute parte. Ikastaroaren aurretik, gai beraren inguruko hitzaldia antolatu zuten eta ehundik gora ikasle batu ziren.



www.aldatze.org

aldatze BARRIZTATUTA



## DORLETA URRETABIZKAIA (antzezlea) "Jendeak komedia on bat eskertu egiten du"

Vaiven eta La Pavanak datorren asteko barixakuan, urtarrilaren 24an taularatuko dute "Terapiak" antzezlan, 20.30etan Coliseoan. Christopher Durang egilearen testuan oinarritutako lanean Dorleta Urretabizkaia, Mikel Losada, Kepa Errasti, Ana Pimenta, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Asier Oruesagasti aktore ezagunek hartzen dute parte, Rafael Calatayuden zuzendaritzapean. Sarrerek 10 euro balio du.

### - Zelako istorioa kontaktzen duzue "Terapiak" antzezlanean?

Esperientzia berriak ezagutu nahi dituen bikote gazte batek internetera jotzen du, txat batera, eta bertan egindako zita abiapuntutzat hartuta, hortik aurrera gauza mordo gertatuko zaizkie. Zita horretatik abiatuta biek terapia egingo dute. Lanean bikoteen harremanez, arazoez eta beste hamaika konturen inguruan egiten da berba, komedia klabean, umore puntu batekin.

### - Eta nolako da zure pertsonaia?

Pruden mundu seguru batean, beldur bariko munduan bizi den neska da. Kontakizun honetan, txataren kontua dela-eta, erabat ezezaguna egiten zaion atea zabalduko zaio pare-parean eta ez daki nola erreakzionatu gertatzen zaizkion egoera berri horien aurrean. Maitasunaren bila dabil eta, kasu askotan, berak bizi dituen egoerekin identifikatzea erraza egiten zait.

### - Orain arte nolako harrera izan du antzezlanean?

Martxoan Donostian estreinatu genuen eta oso harrera ona izan zuen. Bestela, estreinaldian izaten den oihartzun horretatik kanpo ere, taularatu dugun antzokietan jendeak ondo pasatzen du. Badauka Woody Allen-en lanen umore puntu hori, beraz hori gustoko dutenek ederto pasatzen dute orokorrean.

### - Lana euskeraz eta gazteleraz, bietara egiten duzue. Alde handia dago?

Zalantza barik, benetan alde handia dago. Euskeraz jardun edo gazteleraz jardun, pertsonaia aldatu egiten da nahitaez, nire ustez hizkuntzak erritmoa, musikaltasuna... aldatu eta baldintzatu egiten ditu.

### - Antzerkia ikusten barre egitea terapia ona dela uste duzue?

Antzerki mota ezberdinak gustatzen zaizkit, baina komedia on bat, gure buruaz barre egitea oso ona da, jendeak eskeretzen du.

## Michel Tytgat Topalekuan



Gaur arratsaldean, 19.00etan Michel Tytgat artistak erakusketa zabalduko du Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen aretoan. Otsailaren 10era arte ikusgai egongo den erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, astelehenetik barixakura arratsaldeko 19.00-

etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. "20 obras 40 años" izenburuari jarraituta, Eibarren bizi den margolari frantsesak bere margo, akuarela eta marrazkiekin osatutako bilduma ipiniko du ikusgai.



Aurretik ere izan dira Ustekabeoak Donostian. Baita ondo bustita amaitu kalejiraren ondoren.

## Ustekabe Donostiako erdialdeko danborradan

Astelehen goizaldean, San Sebastian egunaren lehen ordutan Ustekabe fanfarrea Donostiako danborradan parte hartzen izango da. Aurtengoa hirugarren urtea izango da, baina erdialdeko danborradarekin estreinekoz jardundo dute eibartarrek. Eibarko 20-25 musikari joango dira Antonio B erdialdeko konpainiarekin batera jotzera eta ordutegia ez da

bat ere xamurra, musikariak eurek dioten moduan: "Domekatik astelehenera bitarteko goizaldean 01.30etan hasi eta 05.00ak arte putz eta putz ibiliko gara. Hala ere, iazko esperientzia errepikatu eta indarrak ondo hartuta joango gara Donostiara. Joan aurretik Edozer elkartearen San Sebastian eguneko afari tradizionala egingo dugu-eta".



## Mikel Markezek lan berria gaur Coliseoan

Gaur 20.30etan Mikel Markez kantariak "Indar bat dabil hor" disko berria aurkeztuko du Coliseoan. Hamargarren diskoaren aurkezpen kontzertuan ez du bakarrik jardungo, martitzenean emandako prentsaurrekoan azaldukoaren arabera: "Taula gainean hirukoteak lagunduko dit. Diskoa grabatzeko orduan aparteko garrantzia izan duen Arkaitz Miner (biolina, mandolina eta gitarra akustikoa), Satxa Soriazu (pianoa eta teklatura) eta Amaiur Cajaraville (kontrabaxua) nirekin batera izango dira". Orain arte beste hiru kontzertu eman ditu Markezek eta oso emanaldi polita izango dela aurreratu du: "Bizi dugun egoeraren jakitun izan arren, apropos ahalegindu naiz mezu baikorrak zabaltzen eta uste dut jendeak hori eskertzen duela". Emanaldirako sarrerak 8 euro balio du eta interneten kutxabank.es helbidean erosteko aukera dago edo, nahiago izanez gero, gaur 19.30etatik aurrera Coliseoko leihatilan. Bestalde, Gazte Txartela, langabetu txartela eta



ikaste txartela aurkezten dutenek euro biko beherapena izango dute (txartela sarrera erostean zein ikuskizunera sartzean erakutsi beharko dute).

## Danborradako Kontzertua

Urtero lez, Usartza Txistulari Taldeak, Eibar-ko Danborradak eta Molto Vivace metal boskoteak Danborradako kontzertua eskainiko dute domekan, San Sebastian egunaren bezperan. Emanaldia 12.30etan hasiko da Coliseo antzokian eta honako piezek osatzen du-

te egitaraua: "Donostiako Martxa", "Diana Txikia", "Diana", "Eibarko Herria", "Idiarena", "Urnietako Ereserkia", "Eibarko Martxa", "Danborren Polka", "Mutriku Herria", "Retreta", "Pantxika", "Hau dek hau", "Katuska", "Debako Martxa" eta "Tatiago".



Domekako emanaldirako hainbat entsegu egin dituzte azken egunotan.

## laburrak

### MARRAZKI LEHIAKETA

As Burgas Galiziako Etxeak bihar 16.30etan umeendako marrazki lehiaketa antolatu du, 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, hurrengo gabonetarako postala egiteko marrazkia aukeratzeko. Maila bi bereziko dituzte (6-9 urte eta 10-12 urte) eta parte hartzen duten guztientzat txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte.

### EUSKARA IKASTEN

Euskara ikasi nahi dutenentzat matrikulazioa zabalik dago Udal Euskaltegian zein AEK-n. Maila guztiak eta ordutegi zabalak eskaintzen dituzte bietan eta titulu ofizialak ateratzeko aukera (EGA, Administrazio, Osakidetza eta Ertzantzaren perfilen baliokideak...) badago. Langabetuentzat-eta tarifa bereziak daude. Informazio gehiagorako euskaltegira zuzenean jo edo deitu daiteke.



### ZAPATUKO IPUINA

Datorren asteburuan, urtarrilaren 25ean Zapatuko Ipuina eskainiko du Maite Franko ipuin kontalariak. "Mundipurdiko ipuinak" izenburuko saioa 18.00etan hasiko da umeen liburutegian eta sarrera doan da.

## DOLORES NARBAIZA ANSOLA

### 1. URTEURRENA (2013-I-13)



Berg aldeko Męza ospatuko da urtarrilaren 19an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andręs parrokiari.



○ Euskal literaturaren irakurle kopurua

Euskal literaturaren irakurleak 15.000-20.000 izango direla dio Harkaitz Zubiri soziologoak. Baikor izateko motiboak badaude, adituen ustez, eta baita kezkatzeko ere. Aipatutako kopuru hori ohiko irakurle sutsuak osatzen dute, urtean hamabi liburu baino gehiago irakurtzen dituztenak. Ohiko irakurle moderatuak -urtean bost eta hamabi artean irakurtzen dituztenak- 40.000 inguru dira. Eta tartekako irakurleen kopurua -irakurri bai, baina urtean bost liburu baino gutxiago irakurtzen dituztenak- 100.000tik 150.000 arterainoko kopuru horretan murgiltzen da.

# euskararen txokoa

## Txotxongiloak zapatu arratsaldean

Bihar zapatua "Beldartxo Jatuna" umeendako antzezikizuna eskainiko du Didau Antzerki Faktoriak 17.00etan Coliseo antzokian (sarrerak 5 euro). Ikuskizunak, aktore, txotxongilo eta musikaren bidez bizitzaren prosezua kontatzen du eta, diotenez, "horri esker, haur txikiek bizitzaren eboluzioa ikusiko dute, antzerkiak beti eransten duen magia puntu batekin". Hogeitabost urte Sevillan eman eta gero, Zarautzen ibilbide berriari ekin diote Didau Antzerki Faktoria osatzen duten Ainhoa Agirre zarauztarak eta Juan Manuel Alvarez cadiztarrak. Horregatik, bihar taularatuko duten antzezlana proiektu berriarekin sortutako lehena izan arren, aurretik eskarmentu handia duten aktoreak daudela nabari da.



Antzezlana proiektu berriarekin sortutako lehena izan arren, aurretik eskarmentu handia duten aktoreak daudela nabari da.

## Otsailean ere Harixa Emoten

Aurreko martitzenean Idazlearekin Harixa Emoten literatura-tertulian Jokin Muñozen "Antzararen bidea" lanari buruz jardun zuten Juan San Martin Liburutegian. Hurrengo saioa otsailaren 4an izango da, 19.00etan eta, Antxon Nar-

baizak lagunduta, Lander Garroren "Kontrarioa" eleberriari mami aterako diote (eta ez Oihan Vegaren "Euskararen espektakulue" izenburukoari, aurreko aste-ko aldizkarian nahastuta idatzi genuen moduan).



**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33      ZULOAGATARREN, 7



---

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan      Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK   • ESKELAK   • HILARRIAK   • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:      ZERBITZU IRAUNKORRA:

Txalixta-Zelai, 4-6 - behea, ezk.      ☎ 943 201095      FAX: 943 202564

BERTSO SAIOA

Jon Mikel MUGICA (Ebor)

Nerea Ibarzabal (MorkinO-xemen)

Manu GOIOGANA (Trun)

Aimar Goenaga (Ebor)






Cajal eta Iria. Ion Martinez

Ur+Amilaren 17an barixakua

23:00etan

Ainoha eta Iria:       Logun eta Iria:       

## Bertso saioa Akara tabernan

Gaur 23.00etan bertso saioa egingo dute Akara tabernan. Hanka-motxak bertso eskolakoekin batera antolatutako saioan Jokin Bergara, Jon Mikel Mujika, Aimar Goenaga, Manu Goiogana eta Nerea Ibarzabal bertsolariek jardungo dute, Ion Martinez gai-jartzailaren aginduetara. Hala ere, publikoak gaiak proposatzeko aukera izango du. Horregatik, antolatzaileek bertsozaleak animatu nahi dituzte, saioaz gozatzera gerturatu daitezten.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JULE, atzo zortzi urte egin zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NADIA, bixar bost urte egingo dozuz-eta. Guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, IZAR, martitzenian urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat gure "mañica"-rentzat etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, SABRINA, astelehenian zortzi urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GORETTI, martitzenian urtiak egingo dozuz-eta. Segi beti bezain jator. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ALAIN, gaur bederatzi urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat gurasuen partez.




Zorionak, JULEN Blanco Gantxegi, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JULES. Bat, bi, hiru... eta lau urte bete dozuz! Ezin siñestu! Disfrutau!



Zorionak, ARKAITZ, domekan 12 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, TXOMIN, 40 urte bete dozuz-eta. Muxu bat Lucia, Mara, Alain eta Eliren partez.



Zorionak, KOLDO eta HARITZ, etxeko morroskuak 5 eta 14 urte betetzen dabez-eta. Aupa bikote! Muxu haundi bat etxekuen partez.

## hildakoak

- Inocencio Garcia Fernandez. 93 urte. 2014-I-7.
- M<sup>a</sup> Jesus Arando Beristain. 51 urte. 2014-I-10.
- M<sup>a</sup> Esther Albizuri Alberdi. 86 urte. 2014-I-10.
- Julio Fernandez Vazquez. 89 urte. 2014-I-13.
- Alberto De la Fuente Sebastian. 52 urte. 2014-I-14.
- Jose Enrique Gonzalez Orueta. 75 urte. 2014-I-15.
- Mila Arrieta Zubimendi. 70 urte. 2014-I-15.

## jaiotakoak

- Nicolas Andres Muñoz Andrade. 2013-XII-27.
- Malen Arriaga Nieto. 2014-I-6.
- Markel Uribe Elexpuru. 2014-I-7.
- Eider Gonzalez Fernandez. 2014-I-8.
- Iñaki Treviño Vega. 2014-I-8.
- Ander Quina Vidal. 2014-I-10.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

**18an: 19.45, 22.30**  
**19an: 17.00, 20.00**  
**20an: 20.30**

"**Sobran las palabras**"

Zuzendaria: Nicole Holofcener



(2 ARETOAN)

**18an: 19.45, 22.30**  
**19an: 17.00, 20.00**  
**20an: 20.30**

"**Vivir es fácil con los ojos...**"

Zuzendaria: David Trueba




(ANTZOKIAN)

**18an: 19.45, 22.30**  
**19an: 20.00**  
**20an: 20.30**

"**En solitario**"

Zuzendaria: Christ. Offenstien



(ANTZOKIAN)

**19an: 17.00**

"**Futbolín**"

Zuzendaria: J.J. Campanella



**BARIXAKUA 17****PINTXO DEVELOPPER**

**18.30.** Pintxo Developer topaketa. Anardi tabernan (Errebal, 12).

**TAILERRA**

**19.00.** "La aventura de comprar instrumentos" (alde zurretik izena eman dutenentzat). Casanella Studio-n (J. Gisasola, 16).

**KONTZERTUA**

**20.30.** Mikel Markez, "Indar bat dabil hor" zuzenean aurkezteko kontzertua. Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

**BERTSO SAIOA**

**23.00.** Bertsolariak: Jokin Bergara, Jon Mikel Mujika, Aimar Goenaga, Nerea Ibarzabal eta Manu Goiogana. Gai-jartzailea: Ion Martinez. Akara tabernan.

**ZAPATUA 18****HAUR PARKEA**

**11.00/14.00 eta 17.00/20.30.** Bi eta hamabi urte bitarteko umeentzat. Astelena frontoian.

**MARRAZKI LEHIAKETA**

**16.30.** XIX. Gabonetako Marrazki Lehiaketa, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Txokolata eta bizkotxoak banatuko dizkiete parte-hartzaile guztiei. As Burgas Galiziako Etxean.

**ANTZERKIA**

**17.00.** "Beldartxo jatuna" (Didau Antzerki Faktoria). Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**MUSEOA**

**17.00 eta 18.30.** Bisita gidatuak museoan. Sarrera doan. Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan).

**UMEENDAKO TAILERRA**

**17.30.** 2014ko egutegi-tailerra, umeentzat. El Corte Inglesean.

**KIROLA FAMILIAN**

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasateko gunea. Ipuru Kiroldegian.

**KONTZERTUA**

**23.00.** Layo Raser (Irun-Mosku). Ez Dok tabernan (T. Etxebarria, 18).

**DOMEKA 19****DANBORRADA KO NTZERTUA**

**12.30.** Danborradako kontzertua, Usartza Txistulari taldearen, Eibarko Danborradaren eta Molto Vivace metal boskotearen eskutik. Coliseoan.

**KIROLA FAMILIAN**

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasateko gunea. Ipuru Kiroldegian.

**MARTITZENA 21****IKASTEN**

**11.00.** Ikasten elkartearen batzarra. Armeria Eskolan.

**GURASOAK MARTXAN**

**14.30.** "¿Por qué mienten los niños?". Arrateko Andra Mari ikastetxean.

**IKASTEN**

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

**BATZARRA**

**19.00.** Batzar irekia: "Parte hartze prozesua" (2. saioa). Portaleko ikastaro gelan.

**EGUAZTENA 22****IKASTEN**

**11.00.** Kafe tertulia: "Nagusiak eta euren arazoak". Untzagako jubilatuek etxean.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19.00.** Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**EGUENA 23****IKASTEN**

**10.00.** "Toribio Etxebarria" (euskeraz), Jesus Gutierrezen eskutik.

**TAILERRA**

**10.00.** "CV eta joera berriak" (lan bila dabilzatenendako talde-tailerra, doan). Portalean.

**BATZARRA**

**17.30.** Pagatxa emakume elkartearen batzarra. Jarraian, antzezlan egongo da. Portalean.

**AURKEZPENA**

**19.00.** "Supermendikute 2002-2013" liburuararen aurkezpena. Coliseoan.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**HOROSKOPOA****ARIES**

Barruan bueltaka dituzun hainbat kontu lehenbailehen argitu behar dituzu. Ez duzu denbora askorik; beraz, ondo pentsatu.

**TAURUS**

Telebistan irudi gogorrak ikusita ere, handik minutu batera ahaztuta duzu ikusitakoa. Egizu zerbait beharra duten horientatik.

**GEMINI**

Informazio freskoa, inork ez dakiena, duzu esku artean. Kontatu egin behar duzu, ala ezkutatu? Buelta batzuk eman.

**CANCER**

Ez duzu urtarreko aldapa igartzen? Bejon deizula, zuretako hobe! Hobe duzu bide horretatik jarraitzen baduzu. Ez okertu.

**LEO**

Zeuk erabaki: irudimenezko lerroa igaro ala ez. Kontu handiz ibili, badakizu-eta horretan ez dagoela atzera bueltarik.

**VIRGO**

Betebehar gehiago zuretako; era berean, baita onura gehiago ere. Zuretaz urteetan egindako lan gogorraren saria izango da.

**LIBRA**

Konpainia onean ibiliko zara hemendik aurrera. Lehengoa ere ez ten txarra, baina oraingoarekin ezin da konparatu.

**SCORPIUS**

Deabruarekin paktua egin duzu? Zein ederra zauden! Hobe duzu zure sekretua gordetzea, besteek kopiatu baino lehen.

**SAGITTARIUS**

Sasai berria hasi da zuretaz, kolorez betetakoa. Ahalegindu orain duzun zorion horri eusten: zure esku egongo da hori.

**CAPRICORNIUS**


Oso haserre sentituko zara gertuko lagun batekin. Benetan min egingo dizun zeezker egingo du, barkatzea kostatuko zaizuna.

**AQUARIUS**

Beharpenak ederki aprobetxatzen dakien pertsona zara eta benetako aukera bikaina aurkituko duzu. Zorionekoa zu!

**PISCIS**

Besteen aholkuak entzutea ondo dago, baina ez zaitzez tontolapikoa izan. Ez duzu ikusten engainatu nahi zaituztela? Kontuz!



**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiko eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**erakusketak**

✓ **Urtarrilaren 31ra arte**

**ESTHER GALARZAREN** akuarela erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**FERNANDO RETOLAZAREN** "Patagonia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**JESUS BOTAREN** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✓ **Otsailaren 10era arte**

**MYCHEL TYTGAT-EN** "20 obras 40 años" margo, akuarela eta marrazki erakusketa. *Topalekuan.*

✓ **Otsailaren 16ra arte**

**BEART** Bergarako Arte Elkartekoen erakusketa. *Portalean.*

**farmaziak**

✓ **barixakua 17**

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ **zapatua 18**

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ **domeka 19**

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ **astelehena 20**

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ **martitzena 21**

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ **eguztena 22**

EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)

✓ **eguna 23**

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ **barixakua 24**

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

**2014 urte osorako**

**GAUEZ**

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**lehiaketak**

✓ **Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa: **urtarrilaren 22ra arte**, Pegoran.

**SUDOKUA**

3			5			6		9
	6					8	2	3
		9					5	
	4		3	2	6		9	8
				9				
7	9		8	4	1		3	
	2					5		
9	5	4					8	
6		3			8			4

2	5	4	9	1	8	7	6	3
9	3	6	4	5	7	2	8	1
7	1	8	2	3	6	4	9	5
8	4	3	5	2	9	1	7	6
1	9	2	7	6	3	5	4	8
5	6	7	1	8	4	3	2	9
6	8	1	3	4	2	9	5	7
4	7	5	8	9	1	6	3	2
3	2	9	6	7	5	8	1	4

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. 60 m<sup>2</sup>. Berogailu urdina, berriztuta. Teilatu berria. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. 69.000 euro. Deitu 18.30etatik aurrera. Tel. 617-207672.

### 1.2. Errentan

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-337083.  
 – Pisu bi alokagai Arrate-Biden: 3 gelakoa bata eta 2koa bestea. Tel. 645-728317 eta 943-201294.  
 – Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Presa dut. Hilean 450-500 euro ordainduko nuke. Tel. 632-569245 eta 673-271449.  
 – Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.  
 – Pisua konpartituko nuke Eibarren. 250 euro ordainduko nitzuzke hilean. Tel. 660-833346.  
 – Pisua alokagai Barakaldo kalean. Berriztuta. 5. pisuan. Tel. 653-733457.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.500 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidean, kuadrilendako egokia. 20 m<sup>2</sup>. Tel. 681-303507. Oier.  
 – Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.  
 – Garaje itxia alokagai Txomon. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pegorak garbitzeko, sukaldarian jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero, pintore eta lorazain jarduteko. Tel. 628-818558.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa eta orduka. Tel. 680-121252.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 697-308051.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartituko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Arratsaldez eta gauzez. Tel. 628-223441.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da edozein gauzarako. Esperientzia garbiketaren eta atezaintzan. Orgatila jasotzailerako karneta. Tel. 616-370323.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-549224.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ortuan lan egiteko. Tel. 632-987144.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 657-239953.  
 – Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Externa. Tel. 663-860460.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.  
 – Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko eta pegorak eta garajeak garbitzeko. Esperientzia taberna eta jate-txeetan. Tel. 692-332871.  
 – Behargina eskaintzen da pegorak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez. Tel. 620-757528. Arrate.  
 – Mutila eskaintzen da pintore jarduteko. Tel. 617-694603. Manuel.  
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta plantatzeko. Tel. 632-337083.  
 – Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 608-928766.  
 – Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko edo biltegian lan egiteko. Tel. 632-210608.  
 – Mutila eskaintzen da soldatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 622-269278. Carlos.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.  
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 636-419814.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 602-828336.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo laguntzeko arratsaldez. Tel. 636-841158.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-700969.  
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta beste lanetarako. Tel. 686-077316.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 636-976515.  
 – Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-888142.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-280304.  
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.  
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 617-571210.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 636-841158 eta 600-332954.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-053696.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-863019.  
 – Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko goizez. Tel. 616-607121 eta 943-207183.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.  
 – Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko eta garbiketetan jarduteko. Tel. 632-192408.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko, ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.

## 4.2. Langile bila

– Garbitzailea eta sukaldaria behar dira jatetxe baterako, asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a eta argazkia. Eibarko 46. postakutxa.  
 – Ilea-paintzailea behar da ilea-paintze batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254776.  
 – Garbitzailea behar da taberna batean asteburuetarako. Tel. 943-257741.  
 – Emakume euskalduna behar da nagusia zaindu eta garbiketarako. Tel. 943-207149.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitatearako. Tel. 669-622642. Mireia.  
 – Neska euskalduna eskaintzen da klaseak emateko. DBH eta Batxilergo-ko ikasgai zientifiko-teknikoak ematen esperientzia. Bakarka edo talde txikiak. Tel. 615-704540.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Bigarren eskuko soinu txikia erosi nahi dut. Tel. 689-207241. Carmen.  
 – Lehen jaunartzerako marinel trajea salgai. Beige kolorekoa. 14 tailakoa. la berria. Prezioa adosteko. Tel. 630-686469.  
 – Hiru plazako sofa salgai. 2,00x0,85 metro. Salmoi kolorekoa, bi urte erabilita. 100 euro. Tel. 660-805301. Miriam.  
 – Somierra salgai. 1,35 metrokoa, hankekin, gehi gaueko mahaixto bi. Wengue kolorekoa, urtebete erabilita. 80 euro. Tel. 660-805301. Miriam.  
 – Snow taula salgai. Burton Seren, eginberriko hertzekin. 1,68 m. Fijazioak opari. 140 euro. Tel. 679-867543.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galduta nirentuen abenduaren 22an Zuloagatarren eta T. Etxebarria inguruan. Tel. 658-719676.

### 6.4. Bestelakoak

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.  
 – Asteburuetan belaontzian nabigatzeko taldea osatzen ari gara. Tel. 605-751127.

# + OSASUN GAZDA

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - sailarua  
943 20 19 82

Oftalmologoak  
Centro de Oftalmología Avanzada

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikak

• Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050**

**ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746**

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia  
Tel. 675 706 807

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOA  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA

**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**

Urkizu, 13 - beheak  
Tel. 943206823 eta 686859023



HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira

## **Asko dira** gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun

 **innova**dental  
CLINICAS



### **Createch Medical-en**

etorkizuna gerturaten dizugu,  
implanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [Azpeitia]  
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)